



3 URTEURRENA

Semblanteren 20 urteen ospakizunak asteburuan

Herriko Semblante Andaluz elkarteak 20 urte bete ditu eta hau dela eta ekintza bereziak antolatu ditu astebururako. Hauetaz gain, asteazkenean "20 años de folklore y fogones" liburuxka aurkeztu zuten. Honetan elkartearen gastronomia eta kultur arloak jaso nahi izan dituzte. Aurkezpenean elkarteko bazkide asko egoteaz gain, Semblante bere ibilbidean izandako hiru lehendakariak bildu ziren, Jose Perez, Antonio Pedraza eta egun karguan dagoen Abdon Fernandez.

4-5 BURUNTZALDEA

Ipuinak tresna euskararen transmisioan

Bea Egizabal herriko ipuin kontalariak gurasoekin burutzen ditu hainbat ikastaro. Hauetan ipuinak oso tresna baliagarriak direla erakusten du, batez ere balore zein euskararen transmisioan erabakiorrak. Ipuinek hezten dutela azpimarratzen du eta gurasoek hauek ikasteko beharra dutela.



Gehiengo sindikalak deituta atzo lan erreformaren aurkako greba izan zen Estatu mailan. Lasarte-Orian jarraipen handia izan zuen. Sindikatuek kotxe karabanak eta pikete informatiboak antolatu zituzten eta arratsaldean, manifestazioa izan zen. Jardunaldia lasaia izan zen, nahiz eta goizean Michelingo fabrikako harreran arazoak izan.

Lasarte-Oria itxi itxurarekin esnatu zen atzo. Gehiengo sindikalak Espainiako gobernuak aurrera atera nahi duen lan erreformaren aurka deitutako greba orokorrak erantzun handia izan zuen gure herrian.

Okindegiak, tabernak, supermerkatuak, Urbil merkatalgunea eta denda gehienak itxita egon ziren egun osoz deialdi honekin bat eginez. Hori bai, Osakidetza, Euskotren eta autobus enpresek zerbitzu minimoak eskaini zituzten.

Herriko ikastetxeetan grebaren jarraipena desberdina izan zen. Landaberrin zerbitzu minimoak izan baziren ere, ez zen haur eta gazterik hurbildu. Sasoeta-Zumaburu ikastetxean ere zerbitzu minimoak izan ziren baina honetan bai haur batzuk izan ziren. Institutuan berriz, Batxillergoko ikasleek greba egin zuten eta gainontzean ikasle gutxi batzuk egon ziren. Azken honetan irakasleen %65ak egin zuen greba.

Grebaren jarraipen handia

Atzo goizean, Michelin lantegiko sarreran sortu ziren arazo aipagarrienak



LAB-ek antolatuta grebaren aldeko kotxe karabana ibili zen goizez eta arratsaldean Lasarte-Orian.

Mobilizazioak

Sindikatuek deituta mobilizazioak izan ziren Lasarte-Oriako kaleetan barrena. Hauek goizean goizetik izan ziren eta batez ere pikete informatiboak.

LAB-ek kotxe karabanak antolatu zituen hipodromotik abiatuta gure herriko kaleetatik barrena eta hauek goiz eta arratsaldean burutu ziren. Lehena 8:00etatik aurrera eta bigarrena 16:00etan hasita.

ELA sindikatuak bere alde, piketeak egin zituen herriko enpresa gunen nagusietan.

Egurdian, sindikatuako ordezkari eta herritar asko Donostiara gerturatu ziren Espainiako Gobernuaren lan erreformaren aurkako manifestazio jendetsuan parte hartzeko. Hau dela eta, isiltasuna eta lasaitasuna nagusitu ziren herrian.

Bestalde, arratsaldean, ezker abertzaleak eta LABek antolatutako manifestazioa burutu zen. Eta ELA sindikatuak ere babestu zuen ekintza hau.

Michelinen arazoak

Eguna lasaia izan bazen ere, Michelin enpresako langileen

artean gertatu ziren arazo aipagarrienak.

Pikete informatiboak goizean goizetik jarri ziren enpresako sarreran eta hauek azaldu zigitenez, hika mika sortu zen bulegotako langile batzuekin hauek lanera sartu nahi zuten. Tentsio uneak bizi zituzten langile hauek Ertzaintzaren babesarekin, piketeak mehatxatu zituztenez. Hala ere, piketeek ez zuten erantzun nahi izan.

Michelingo produkzioa geldituta egon zen atzo bertako bost sindikatuak babestu zituzten greba deialdia.

ANAIK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA !

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



Neure kabuz



Gorka Lasa

Sukaldeko lanak

Ni *sukaldaria* naiz. Baina gaurkoan, nire lehen zutabea, ez nator sukaldaritzaz idaztera. Ez dizuet postre goxo baten errezeta eman, ezta sukalderik zikindu gabe jatordu bat prestatzeko trukorik ere.

Azken urte hauetan, gure sukaldaritzaz asko goraipatu dute munduan zehar. Munduko gastronomia gidarik ezagunenetan lehen postuetan ageri dira euskal sukaldariak. Hara eta hona dabilta zuriz jantzita, aitasantuaren gisan, instituzioetako inaugurazio ekitaldietan parte hartuz, edo moda, zinema, musika, kirol edo kulturari loturiko edonolako ekitaldietan, gure ordezkari eta enbaxadore bihurtuta.

Argi dago euskal sukaldaritzaz errentagarria da. Gure ekonomia-aren zutabetako bat turismoa izanik, berau erakarri eta sarean harrapatzeko, amu ederra da ondoen egiten dakigun hori mimos eta gustoz saltzea.

Baina bada beste kontu bat. Azkenaldi honetan ahoz aho entzuten dut "sukaldeko lanak" ondo egin behar diren kontua. Agian nire susmoa da, baina lehen baino gehiagotan entzuten dudana esamoldea da. Eta honek zalantza sortu dit: gure sukaldariak hain onak badira, gure gastronomia hain preziatu eta eraginkor bilakatu badute, *sukaldeko lana* ondo egiten dakitekako al da? Hara hor gakoa!

Agian denok egin beharko genituzke sukaldaritzaz ikastaroak. Denok jantzi beharko genuke mantala, eta denboralditxo bat pasa Arzak, Berasategi edo Arbelaitzen ondoan, sukaldeko lan ona nola egiten den ikasteko. Zeren, agian, gauzak hobeto joango liriteke hain ondo jaten dela harro zabaltzen dugun herri honetan *sukaldeko lanak* hobeto egingo bagenitu.

Zorion agurrak



Montse eta Tamara

A ze parea! Bihotz bihotzez, ondo pasa zuen eguna eta urtea primerako izan dadila.



Unai

Zorionak maittia! Txokolatezko 5 muxu erraldoi zure familiaren partetik. Ondo pasa



Nerea

Zorionak! 7 muxutxu gure etxeko printzesarentzat familiaren partetik.



Sara

Zorionak! Txokomarrubizko 4 muxu pottolo aitaxo, amatxo eta famili guztiaren partetik



Amaieur

Zorionak sorgintxo lau muxu pottolo etxekoekin partetik.



Lucas

Zorionak txapeldun gurasoen eta Sheenaren partetik. Ondo pasa!



Malen

Zorionak katutxo!! Oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean! Muxu handi bat!



Asier

Zorionak txapeldun! Ondo pasa Aita, ama eta Anderen partetik. Muxu handi bat.



Iraia

Zorionak Printzesa! Bost muxu pottolo Leire, amatxo eta aitaxoren partetik.



Irati

Zorionak printzesa! Festa ospatzeko eguna da!!! 4 muxu amatxo eta aitaxoren partetik.



Enara

Zorionak! Dagoeneko lau urte egin ditu gure printzesak. Muxu pila etxeko guztien partetik.



Sergio eta Aimar

Zorionak txapeldunak! 9 eta 5 muxu pottolo. Primeran pasa genuen zuen urtebetetzean!



Aitor

Zorionak eta ondo pasa! Hamar muxu familikoekin partetik!



Arrate

Zorionak! Zure eguna ederki igaro izana espero dugu.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Estudio bat alokatzen da Vieux-Boucaux-en Aste Santurako edo Pazko asterako. Prezio onean. Tel.: 688 667982
- 116m²-ko aparteko pisua salgai, Iñigo de Loyola, 2an. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute. Sartze-ko prest. 330.000eur. Harremanetarako zenbakia, 639 738 413.
- Garaje marra bat alokatzen da Green Plazan. 50 euro hilabetea. Telefono zenbakia 943 492 558.

- Lehen Jaunartzeko 2 jantzi saltzen ditut, oso prezio onean. Tel. 688 667 982.

Salerosketak

- Bigarren eskuko gela makina eta ontzi garbigailu industrialak salgai. Biak 600euro. Maialen 663 447 332.
- Bizkientzako aulkia saltzen da. Egoera onean. Harremanetarako zenbakia, 658 743 763.

Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen etxeko lanak, pertsona helduak edo haurrak zaindu. Interna

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Danna Maria Roman Ruiz, martxoaren 17an.

Heriotza

- Francisco Martin del Rey, martxoaren 24an, 71 urte zituela.
- Josefa Iglesias Garcia, martxoaren 24ean, 100 urte zituela.
- Cecilia Cerezo de Sena, martxoaren 23an, 88 urte zituela.
- Manuel Serrano Ayants, martxoaren 22an, 86 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 30**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Larunbata, 31**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Igandea, 1**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Astelehena, 2**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Astearte, 3**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteazkena, 4**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Osteguna, 5**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Ostirala, 6**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata 7**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea 8**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena 9**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chudla, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

URTEURRENA



Herriko elkarteak 20 urte hauetan izandako hiru lehendakariak aurkeztu zuten liburua.

Semblanteren sukalde kontuak

“20 años entre folklore y fogones” liburua aurkeztu du herriko Semblante Andaluz elkarteak bere 20. urteurrenaren ospakizunetan

Herriko Semblante Andaluz elkarteak 20. urteurreneko egitarau berezia asteazkenean hasi zuen elkarte baskideen laguntzarekin argitaratutako “20 años entre folklore y fogones” liburuaren aurkezpenarekin.

Semblante Andaluz elkarteak 20 urte betzen ditu eta hain urteurren berezia ospatzeko, ekimen ezberdinak antolatu ditu astebururako. Hala ere, asteazkenean

elkartearen egoitzan aurkeztu zuten urteurrena ospatzeko kaleratutako “20 años entre folklore y fogones” liburuxka. Honetan elkarteak urte hauetan izan dituen hiru lehendakariak, Abdon Fernandez egungo lehendakaria dena, Jose Perez eta Antonio Pedraza parte hartu zuten.

Jose Perez lehenengoa izanda, hitza hartu eta gogora ekarri nahi izan zituen elkartearen lehen urratsak. Eskerrak eman zituen hasiera horretan dirua jarri zuten baskideei eta gogora ekarri zituen ere dagoeneko hilda dauden baskideen lana. Hirurek eskerrak eman zizkie-

ten baskideei eta elkartearen etorkizuna luzea izateko lanean jarraituko dutela azpimarratu zuten.

Asteburu oparoa

Larunbatean “Sueño andaluz” ikuskizuna antolatu du Semblante Manuel Lekuona kultur-etxean 19:00etan eta iganderako elkartearen egoitzan bazkari herrikoa egingo dute. “Amigos del Sur” taldearen emanaldia izango dute bazkal ostean eta dantzaldia ondoren. Festa amaierako ekintza berezia ere antolatu dute 20:00etan urteurrenari amaiera borobila emateko.



Bateragune auzia salatzen elkarretaratzea.- Lasarte-Oriako Bilduk deituta Udaletxe aurrean elkartu ziren hainbat herritar Bateragune auzia salatzen “Rafa Diez Askatu. Politikagintza ez da delitua” lelopean. Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea Madrilan aztertzen zuela eta deituta zegoen ekimena asteazkenean. Honetan udaleko hainbat zinegotzi eta Pablo Barrio alkateak egon nahi izan zuten, honen hitzetan “ez du hanka ez bururik egoerari irtenbide politikoa ematearen alde egiten dutenak kartzelaratzeko”. Auzi honengatik bost lagun daude kartzelan, horien artean Rafa Diez lasarteoriatarra. Auzitegi Gorenak datozen egunetan emango du ezagutzera azken erabakia. Defentsak, akusatuentzat absoluzioa eskatu zuen.

MUSIKA

Iñaki Salvadorren kontzertua gaur

Iñaki Salvador pianista, akordeoilari eta musika moldatzaile gisa aritu izan da disko eta kontzertu askotan, beti euskal kantagintzari lotutako ibilbidean. Gaurkoan “Kantagin jazz” proposamen berriarekin dator Lasarte-Oriara. Honetan Iñakiaren pianoak eta Aina Ortegaoren ahotsak Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Leta, Mikel Markez, Amaia Zubiria, Juan Carlos Perez eta beste hainbat euskal kanten jazz bertsoiak eskainiko dituzte Manuel Lekuona kultur-etxeko oholtza gainean gaur 19:00etan hasiko den kontzertuan. Emanaldi hau Gizarte Kutxak babestutako kontzertua izaki, sarrera doakoa izango da.

ELKARTASUNA

Ostateren jai solidarioa bihar

Bihar larunbata, Adsis Fundazioak Bolivian garatzen duen UTASA izeneko proiektuaren aldeko elkartasun festa izango da herriko Ostarte Gazte taldearen eskutik. Jaialdia Brigiden parke kalean egingo da. Bertan taberna bat jarriko dute antolatzaileek eta umeentzako tailer ezberdinak burutzeko aukera izango da; aurpegiak margotzeko tailerra, pultserak egitekoa, txapak egitekoa besteak beste. Bidezko Merkataritzako produktuen salmentarako postua ere jarriko da. Azkenik tonbola solidarioan parte hartzeko aukera ere izango dute bertaratutakoek. Jaialdia 10:00etatik 14:00ak arte egingo da.

IKASTAROAK

Emakumeentzat eskaintza zabala

Emakumeen Zentro Zibikoak ikastaroetan eskaintza zabala du aurtengoan eta era guztietako ikastaroak daude herriko emakumeen eskura. Kantua, sukaldaritza, batuka, yoga, pilates, sabel dantza, jantzi konponketak eta patrioiak, eskulanak, bitxigintza, frantsesa eta Tai-chi ikastaroak daude aukeran beste askoren artean. Ikastaro hauek apirilaren 10an hasi eta ekainaren 28ra bitartean burutuko dira.

Izena ematea Zentro Zibikoan bertan egin beharko da izan ere, ez da telefonoz matrikulaziorik onartuko. Aurkeztutakoaren artean badira doakoak diren ikastaro batzuek: osteguneko gimnasiaren bigarren txanda, osteguneko eskulanak, orratz-lanak, jantzigintza, jantzi konponketak eta patrioiak, frantses mintza praktika eta euskara txokoa. Hauetan hala ere, izena eman behar dela azpimarratzen dute antolatzaileek. Apirilaren 4a izango da izena emateko azken eguna.

HAURRAK

Ipuin kontalarrien lilura

Inguma taldearen eskutik astearte arratsaldean ipuin kontalarientzat tartea izan zen Manuel Lekuona kultur-etxean. Saiorearen izena “Bidaian”, bost eta sei urteko txikientzat zuzendutako ipuina izan zen. Istorioaren magiak harrapatuta bidaia batean mugildu ahal izan ziren bertan bildutako haur guztiak izan ere, goraino bete zuten liburutegiko gela. Ekintza hau Gizarte Kutxak babestutakoa izan zen eta aldi berean kultur-etxearen egitarauaren baitan antolatuta.





IPUINEN MUNDUA HELDUENA ERE BADELA ALDARRIKATZEN DU

Kontu kontari, transmisio lanean

Ipuin kontariari ezaguna da Beatriz Egizabal lissartortarra, Burunduzaldean. Ikastaroekin batera, batez ere haurrentzat eskaintzen ditu saioak, baina mundu hau helduena ere badela aldarrikatzen.

Libururak oso tresna lagungarriak dira. Hala modu batean, Beatriz Egizabal ipuin kontariak. "Gurasoak kontratatzen dira, ipuinekin gaitza asko aldatu daitezkeela. Eta batez ere ondo pasa daitezkeela".

Lan gehiena haurrekin egiten duzue, baina baita helduekin ere?

Beatriz Egizabal. Hor dugu eronka, helduekin. Saiotea-ordua gertatzen denean helduek sorpresa handia hartzen dute.

Joan dena oso harrituta gelditzen da, ez duelako espero saroak irauten duen ordu horretan egon zaitezkeon pertsona bat zerbait kontatzen eta zu hain sarri. Kuriositateak haurrek bai, baina helduek ere badute.

Certatuko zitezazun haurra laguntzera guraso bat joan eta emanaldian haurra baino gehiago inplikatuaz?

B. E. Haurrak eta gurasoak inplikatuaz direnean, saioak oso politak izaten dira. Aurrerako batean, guraso bat barreari eusten zegoen, beraz irudiaz zaielako ipuin saioa ez dela eurenaz eta bera oso ondo pasatzen ari zen. Baina ipuinak zelako gaitza egiten zion, lotsa ematen zion adieraztea.

Kontatzen artzea bestdanik oso gustukoa izan duzu. Bizi estilotik ogibidea egin duzula esan liteke?

B. E. Bihuru egin da. Atzera begira jarrita, neuran zer gertatzen ez dut kontzientzia bukatu. Bete berritua izan naiz, gehiago kontatzea, ordea, istorioak kontatzea ogibidea izan zitekeenik. Duela urte asko, tabernan lan bati esaten nion, inaginatzen duzu horrela hitz egiteagatik kobratzeaz? Berak asko marrazten zuen. Arbasaten lanean nehillen...

la ipuin kontariaritzako ikas-taro bat egiteko aukera izan nimen. Geroztik saioekin hasi ipuin kontariak. "Gurasoak kontratatzen dira, ipuinekin gaitza asko aldatu daitezkeela. Eta batez ere ondo pasa daitezkeela".

Adibide moduan, 2011n zerbait emanaldi eskaini dituzue?

B. E. Gutsienez, 669. Gehienak haurrei zuzenduak. 2003. urtean, tabernan neurekin hitz egiten zuten lagun harekin, egun bikotea dudunarekin joaten naiz saioetara. Ilustratzailea da eta ipuin bakoitzeko marrazki handi bat egiten du. Hala, ipuinari irudia gehitzen diegu. Entzumena eta ikusmenarekin bat batekoa da emanaldia.

Kontariari ondo irazteko erantzulak hobea izan behar al da?

B. E. Askok hitz egiten duten bakoitzekin gustuena egon zaitzazke, beste batzuk badira asunak direnak. Entzute parte horretan dago batzuen eta bestien arteko aldea. Batzuk entzun gabe hitz egiten dute, berdin zaito aurrean duenak zer nolako aurpegia jartzen duen. Entzuten jakin behar da.

Zer kontatua izateko, belarria non jartzen duzue?

B. E. Istoria gehienak irakurrikoak dira, baina moldatzen dituzte. Neuretzat moldaketa horietan zer egiten den da garrantzitsua. Niretzat garrantzitsua da entzuten, inguruan zer gertatzen den sentsibilizazio edo kontzientziatze bat izateko moldaketa horiek egitekoan.

Ez nuen inaginatzea ordea, istorioak kontatzea ogibidea izan zitekeenik. Duela urte asko, tabernan lan bati esaten nion, inaginatzen duzu horrela hitz egiteagatik kobratzeaz? Berak asko marrazten zuen. Arbasaten lanean nehillen...



Beatriz Egizabal, saio batean.

Tolosa

DIBERTIMENDUAREN GARRANTZIA

"Oso datu gutxiarekin izugarriko istorioak muntatzen ditugu"

Zer aholkatuko zenioke, haurri ipuin bat nola kontatu zailentzat dituen guraso horri?

B. E. Berdina da, ipuinarekin batera dator euskara, euskaraz kontatzen ditugulako. Beraz tresna bat da. Neuretzat helburua dibertimendua da. Umeez ez badute ondo pasatzen, ondoren doazen beste helburu guztiak, ziurrenik ez dira betek.

Euskararekin batera, zer da ipuin baten bidez transmititu dezakezuna?

B. E. Emozioak, gizarartean balore nagusiak. Ipuinek hezten dute. Argi dago, batez ere ipuin klasikoek erantzungo ematen dizkietelanean beldur askori. Gizaarten dauden balore nagusiak atsegin ez dituzkenera zer jartzen da? Ipuin-ko dituzela ipuin batzuk hori kontatzen jartzen dituenak.

Adiclan ez da erraza ordea?

B. E. Gaitasuna demok dugu. Oso datu gutxiarekin izugarriko istorioak muntatzen ditugu. Iruditzen zaizkigu gainera logikoak direla, edo ere ondo pasa daitezkeela.



Maite, bihar Maddiren irakaslearekin hitz egin behar dugu...

Bai, ea pista batzuk ematen dizkigun...

Etxea da eskolarik onena

ATLETISMOA.-

Atleta gazteak fin Atletiadan

Emaitza paregabeak lortu zituzten Landaberri eta LOKEko gaztetxoek igandean, martxoaren 25ean, Antonio Elortza belodromoan Kutxak antolatzen zuen Atletiadan.

Kadete, infantil eta alebin mailako gaztetxoak izan ziren bertan eta hainbat izan ziren Amaia de Andres eta Oscar Goikoetxeak entrenatzen dituzten gazteek lortutako dominak, bai bakarka, baita taldeka ere.

Kadeteak

Lasarte-Oriako taldeek kadete mailan izan zituzten emaitzarik onenak.

Landaberriko erreleboa izan zen azkarrena.

Luzera jauzian, Maria Eugik lehenengo postua lortu zuen, 4,60 metroko jauziarekin.

Maidar Rekondok pisu proban parte hartu eta 9,14ko jaurtiketaekin 2. postuan amaitu zuen.

Ane Galardik eta Aroa Lopezek 60 m. proban izan ziren, Galardi 2. postuan iritsi zen helmugara eta Lopez, berriz, laugarren.

Bestalde, mutiletan Aritz Rodriguezek luzera jauzian 2. postuan amaitu zuen, 5,60 m. egin eta gero.

Infantilak

Infantil mailan ere, Landaberriko erreleboak lehenengo postuan amaitu zuen lehia; Lasarte-Oriak, aldiz, hemeretzigarren.

Pisuko proban ere, Oiana Igarritz lasarteoriatarra izan zen irabazle, 9,25 metroko jaurtiketa egin eta gero.

Bestalde, Idoia Olasagastik 4,60 metroko jauzia egin eta luzerako proban lehenengo postua egin zuen. Proba berdinean, Eneritz Bustok bosgarren amaitu zuen.

Asier Olmosek, berriz, 6. postua eskuratu zuen 100 m. lasterketan.

Alebinak

Alebin mailan herriko taldeek parte hartzaile ugari izan zituzten eta hauek ere fin ibili ziren.

Landaberrik 2. postua lortu zuen erreleboan eta Lasarte-Oriako bi talde aurkeztu zituen, bata hamaikagarren eta bestea 16. izanda.

Pisuan, Naroa Sanzek 9,10 m. jaurti eta lehenengo postua eskuratu zuen. Nerea Martin, Ainara Bardaji eta Ane Diez zazpigarren zortzigarren eta bederatzigarren izan ziren.

Luzera jauzian, Leire Martinek bederatzigarren postua egin zuen.

ARETO FUTBOLA.-

Lehenengo fasea amaitu da

Zortzi talde sailkatu dira, horien artean, ISU Leihoak eta Izkiña

Herriko areto-futboleko txapelketa aste santu ostein bigarren fasean sartuko da, honetan erabakiko da maiztaren 19ko finlaean nor izango den. Sailkatutako artean, azken urteetako finalistak daude.



Buenetxeak 4 eta 1 irabazi zion Izarra bitxitegiari lehenengo faseko azken jardunaldian.

Nerea EIZAGIRRE

Herriko areto-futboleko txapelketak bi asteko atsedendia izango du. Asteburuan bukatu zen lehiaketako lehenengo fasea eta orain bi txapelketa desberdin izango dira jokoan, txapelduen fasea eta kantsolazioa.

Lehenengo fase honetan txapelketan hasi ziren taldeek 17 jardunaldi jokatu dituzte eta norgehiagoka handia izan da.

Antolatzaileek aipatu digutenez, "futbol aldetik ez da arazorik izan, baina pistarekin izan ditugu arazoak. Partida asko pilotalekuan jokatu behar izan ditugu."

Txindoki, ISU Leihoak, Buenetxea, Izarra Bitxitegia, Izkiña taberna, Ayete, El Punto taberna eta Balerdi Harategiak dira hurrengo faserako txartela lortu duten taldeak.

Finalerako bidea

Sailkatutako zortzi taldeek final laurdenak eta finalurreak bi partidetara jokatu dituzte.

Antolatzaileek jakin arazi digutenez, final laurdenak apirilaren 15ean eta 22an izango dira eta finalerdiak maiztaren 06 eta 13an. Final handia, berriz, maiztaren 19an.

Finalerako bidea zaila izango da. Aurreko urteetako finalean izan diren taldeak ISU Leihoak eta Izkiña sailkatu baitira. Baina lehenengo fasean, partida bakarra galdu duen Txindokik zer esana izan dezake.

Kantsolazioa

Bestalde, gainontzeko taldeek aste honetan hasten den kantsolazioa jokatu dute.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "bi talde egingo dira eta liga jokatu dute. Taldeetako bi hoberenek final erdikoak jokatu dituzte eta irabazleek finala".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 31
 Michelin, 10:00etan
 Ostadar-Sporting de Herrera
Infantilen Ohorezko maila, kopa
 Ipintza, Bergara, 11:00etan
 Bergara-Ostadar *Infantil txikiak, kopa*
 Michelin, 11:30etan
 Ostadar-Aizkorri I. *Infantila, kopa*
 Ubitarte, Andoain, 12:30etan
 Euskalduna-Texas Lasartearra
I. Kadetea, kopa
 Michelin, 13:00etan
 Ostadar-Bergara
Jubenilen Ohorezko maila, igoera
 Michelin, 15:30etan
 Ostadar-Beasain I. *Erregionala, igoera*
 Segura, 15:30etan
 Segura-Texas Lasartearra I. *Erregionala, kopa*
 Michelin, 17:15etan
 Ostadar-Kostkas M.B. *Erregional Garena*
 Lezo, 19:30etan
 Allerru-Ostadar I. *Kadetea, igoera*

Igandea 1

Michelin, 10:00etan
 Ostadar-Euskalduna
Infantilen Ohorezko maila, igoera
 Artia, Iru, 11:00etan
 Behobia-Ostadar *Alebinak, kopa*
 Michelin, 11:30etan
 Texas Lasartearra-Antigua Luberr
I. Jubenila, kopa
 San Miguel, Mutriku, 17:30etan
 Mutriku-Ostadar
Emakumezkoen Erregionala, igoera

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 31
 Kirolegia, Bilbo, 15:30etan
 ISU Leihoak-Sasikoa
Euskal Liga
 Abusu kirolegia, Bilbo, 18:30etan
 Gora-Buruntza K.T.Aldaz H.K.
Nazional III. maila



SQUASHA

Ostirala 30
 Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Kinin Calvo-Javier Serrano
 Raul Mateos-Iñaki Garcia
 Astelehena 2
 Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Francisco Delgado-Asier Mundate

Asteartea 3

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Xabier Amiano-Aitor Tejero
 Roger Hidalgo-Joaquin Peña

Asteazkena 4

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Javier Serrano-Pablo Fermoselle
 Iñaki Garcia-Iker Cañedo

Asteartea 10

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Asier Mundate-Kinin Calvo

Asteazkena 11

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Aitor Tejero-Francisco Delgado
 Joaquin Peña-Fernando Montero

Osteguna 12

Kirolegia, 18:00etatik aurrera
 Oswal Cañedo-Xabier Amiano
 Juanjo Martin-Roger Hidalgo

IGERIKETA

Larunbata 31
 Hernani, 16:00etan
 Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta alebinek Kirol Zehaztasun Ligako 4. jardunaldia izango dute.

Igandea 1

Malaga, 10:30etan
 Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosak
 Espainiako Udaberriko Openean parte hartuko du.

JUDO A

Larunbata 31
 Zaragoza, 11:00etan
 LOKEko Josu Olmos, Mario Garrido eta Asier Sagastik 20 urte azpiko Espainiako txapelketako sailkapen saioan parte hartuko dute.
 Ezkurdiko frontoia, Durango, 11:00etan
 LOKEko infantil eta kadete mailako judokak nazioarteko Durangoko Hiria txapelketan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Larunbata 31
 Azkoitia, 16:30etan
 Herriko atleta talde batek Diego Garciaren oroimenezko XIX. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian parte hartuko du.

Igandea 1

Orio, 10:00etan
 Herriko atleta talde batek Orioko Mendi Lasterketa proban parte hartuko du.
 Larraul, 10:30etan
 Herriko atleta talde batek II. Larraul-Ernio-Larraul proban parte hartuko du.

DUATLOIA

Larunbata 31
 Durango, 16:00etan
 Herriko duatleta talde batek Durangoko duatloian parte hartuko du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 31
 Deba, 10:15etan
 Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko kadete mailako gazteek XXXIX Amaiak-Bat Sarian parte hartuko dute.
 Elgoibar, 16:00etan
 Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko kadete mailako gazteek Elgoibarko XXIII. Sarian dute.

Aizarnazabal, 16:00etan

Bazpi txirrindulari eskolako infantilek Aizarnazabalgo Sarian parte hartuko dute.
 Igandea 1
 Biyak baten, 8:30etan
 Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Larraitzera egingo du irteera.

ERRUGBYA

Ostirala 30
 Michelin, 19:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjamin mailako gazteek entrenamendua dute.

Larunbata 31

Gasteiz, 12:30etan
 Gaztedi-Beltzak Ostadar Jalai *Infantil federatua*

Igandea 1

Zarautz, 10:30etan
 Beltzak Ostadar Jalai-ko eskolarteko infantilek hiruko txapelketa dute.
 Hernani, 10:30etan
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjaminen Ejea eta Riojaren aurka jokatuko dira.

BOLO-JOKOA

Igandea 1
 Olaberria, 10:00etan eta 16:30etan
 Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Lehendakari txapelketako saioa dute.

— Agenda —

Larunbata 31 eta igandea 1



Semblante Andaluz-en XX. urteurrena

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 31, 19:00etan
 Semblante Andaluz elkartearen XX. urteurrena dela eta, "Sueño andaluz" ikuskizuna antolatuta da.

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Igandea 1, 14:30etatik aurrera
 Semblante Andaluz elkartearen XX. urteurrenoko ospakizuna:
 14:30ean, bazkaria
 17:30ean, "Amigos del sur" taldearen emanaldia
 18:30ean, dantzaldia
 20:00etan, Jaialdi amaiera

Jalgi Hadi Garaipenera!

Euskal gazteriak bere osotasunean sorturiko Jalgi Hadi Garaipenera dinamikaren baitan, Lasarte-Oriako gazteek ere, bereari ekin eta egunero ezkutatu nahi duten Euskal Herriko historia plazaratu eta aldarrikatu nahi dute.

Larunbatean, martxoaren 31ean, "Ezkutua-eskura" izeneko jardunaldia antolatuta dute Lasarte-Orian. Hainbat ekintza prestatu dituzte:

- 9:00etan mendi irteera Okendo plazatik
- 10:30ean amaiketako
- 12:30ean hitzaldia, "Ezkutua-eskura"
- 14:00etan bazkaria Xirimiri elkartean
- 16:00etan bertsolariak eta ondoren trikopotea

Informazio gehiago jaso nahi duenak, tuentiko Buruntza Jalgi Hadi Garaipenera eta facebookeko Jalgi Hadi Garaipenera Buruntzaldea kontuetan, edo jalgihadiburuntza@gmail.com helbidean eskuratu dezake.



Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 1, 19:00etan
 Haur zinea atalaren barruan, "Los Muppets" filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,40 euro. Gaztelaniaz.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 30, 19:00etan
 Lasarte Oria Musika atalaren barruan, "KantaJinJazz" ekimena izango da.

Iñaki Salvador eta Ainara Ortega izango dira Kutzak antolatutako kontzertuan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar
 Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.



Astigarraga Zinea

KULTUR-ETXEA
Larunbata 31, 17:00etan
 "Gartxot" filma ikusgai izango da. Sarrera, 2 euro. Euskaraz.

Hernani Bestelakoa

ATSEGINDEGI PLAZA
Larunbata 31, 10:30etik 13:30era
 Bigarren eskuko azoka antolatuta da.

— Herritarren txokoa —

Galdutako agenda

Poltisiko agenda bat galdu zen duela bi aste, Orbelako autobus geltokian. Aurkitzen duenak dei dezala, 639 220 506 zenbakira.

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, narxtoaren 30ean Lasarte-Oriako Herrira elkarrekin kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Lloret de Mar-era bidai

Biyak Bat Erretiratuen elkarrekin Costa Brava-ra eta zehazki Lloret de Mar-era hamahiru egunetako bidai antolatuta da, maiatzaren 22tik ekainaren 3ra.

Lau izarretako hotelean izango da egonaldia eta otordu eta txangoak prezioaren barne daudela azaldu dute.

Itzeraren prezioa elkarteko bazkideentzat 475 eurotako da eta bazkideak ez direnentzat, 527 eurokoa. Pertsona bakarrarentzako gela eska-

zten duenak 180 euroko gehi karga ordaindu beharko du.

Informazio gehiago edo izena emateko Biyak Bateko egoitzeko bulegora hurbildu behar da, 10:30ak eta 12:30ak artean.

Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarrekin jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Gasolina merkeago Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beharpena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarrekin.

Aterpea Merkataritza elkarrekin martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

— Sarean —



Txintxarri facebook-en

Txintxarri aldizkariaren eraberritzerekin batera, sare sozialetara egin dugu jauzia. Txintxarri-k bere orria du Facebook-en. Gure lagun egin nahi izanez gero, Txintxarri aldizkaria bilatzea besterik ez duzue. Bertan zuen iritzia eman edo gure artikulua eta erreportajeak gustuko dituzuen adierazi dezakezue. Gainera, gure aldizkaritik kanpo geratzen diren gauzak argitaratu nahiko genituzke bertan. Horregatik eskaera bat dugu Facebook-eko erabiltzaileentzat, bertan plazaratu ditzakegun gauzak edo gaiak proposatzea, hala nola, material birziklatuekin egindako bitxien bideoa edo teknologia berriei buruzko artikulua.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Josu Olmos Judoka

“Sailkapena lortzea espero dut”

20 urte azpiko Espainiako txapelketako sailkapen saioan lehiatuko da asteburu honetan, taldeko Mario Garrido eta Asier Sagastirekin batera

LOKEko judokak fin ibili dira aurten eta horien artean, Josu Olmos gaztea dago. Gipuzkoa, Euskadi eta Estatuko txapeldun orde izan da judo, zein sanboan eta Etorkizuneko kirolari izendatu zuen Foru Aldundiak abenduan. Asteburu honetan, 20 urte azpiko Espainiako txapelketarako sailkapena du.

Nerea EIZAGIRRE

Josu Olmos 16 urteko judoka denboraldi paregabea egiten ari da eta aste honetan erronka berria du, Espainiako txapelketarako txartela lortzea. Harekin bildu gara gehiago jakiteko.

Noiz hasi zinen judoan?

Ba uste dut zazpi urterekin hasi nintzela judoan. Garai hartan ez nuen kirol egiten eta gurasoek esan zidaten zerbait egiteko.

Nik berez ez nuen judoa egin nahi, baina etorri nintzen egun batean eta gustatu zitzaidan. Lagun batzuk ere etortzen ziren orduan. Jarraitu eta azkenean lagunak joan dira, nik jarraitzen dut. Orain gustatzen zait eta lasai etortzen naiz, presiorik gabe.

Zein mailatan zaude egun?

Junior lehenengo mailan nago orain. Lehenengo urtea dut maila honetan. Kategoria hau nola doan ikusteko balio dit eta hurrengo urtetan, ea maila hobetzen dudan.

Zein pisutan zaude?

55 kilo azpikotik ditut. Kosta-

tzen zait pisu horretan mantentzea, baina azkenean... Gauza batzuk jateari utzi behar diozu eta kirol pixka bat egiten ere, baina azkenean lortzen dut.

Txapelketetan hobeto da 60 kilo baino 55 izatea. Tamainaz txikiagoak dira eta nire adinekoak. Handiagoak ez dira izaten pisu horietakoak.

Lehenengo urtea duzu maila honetan desberdintasun handia nabaritu al duzu?

Bai, iaz kadetea nintzen eta junior mailan lehiatu nintzen. Orduan, ikusi nuen gorpuzkeragatik besteek indar gehiago zutela. Zailagoa da horregatik, baina gimnasioan ere lan egiten dut indarra lortzeko.

Baina, batez ere, adinean dago desberdintasuna. Besteak zaharragoak dira eta indar gehiago dute. Teknika aldetik ere hobetoak dira. Izan ere, hiru adin desberdinetakoak gaude maila honetan.

Hala ere, aurten domina pila lortu dituzu...

Bai, kuriosoa da gainera, aurten aurkeztu naizen txapelketa guztietan bigarren postua lortu dut.

Sei txapelketetan izan naiz, Euskadi eta Gipuzkoa mailan.

Eta oso pozik nago. Lehenengo urtea izanik zailagoa da, baina kontent nago.

Lehenengo asteburuan, 23 urteko azpiko Euskadiko txapelketan izan zinen.

Ez zegoen jende asko lehiatzen. Finala galdu nuen eta ez nintzen sentsazio onarekin geratu.

Asteburu honetan berriro daukat lehiaketa eta lehenengo edo bigarren geratzea espero dut, Espainiako txapelketarako sailkatzeko.

Beraz, junior mailako Espainiako txapelketarako



Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

txartela lortuko duzula uste duzu.

Hiru judoka gaude maila ona daukaguna eta berez, uste dut beste bik nik baino hobea dutela.

Txapelketan lan ona egitea espero dut eta zorte pixka batekin sailkapena lortzea. Hau da, bietako bati irabaztea eta bigarren edo lehen postua lortzea.

Sailkapenarekin Espainiako txapelketara joango nintzateke. Iaz ere sailkatu nintzen eta aurten joatea espero dut.

Sanbon ere lehiatu zara ezta?

Azkenean judoan ez dago hainbeste lehiaketa eta antzekoak diren kirolak ere egiten ditugu, sanbo eta borroka.

Nik aurten ez dut borro-

ka egin, baina sanbon Espainiako txapelketan izan nintzen eta bigarren izan nintzen. Finala galdu nuen, baina bigarren postuarekin kontent geratu nintzen.

Hurrengo urterako Foru Aldundiak etorkizuneko kirolari laguntza ematea espero dut. Iaz sanboko estatuko txapeldun izan nintzen eta diru laguntza eman zidaten. Hurrengo urterako berritzea espero dut.

Horrek zer suposatzen du zuentzat?

Honek diru laguntza txiki bat ematen dizu, judoan jarraitu eta materiala, kimonoak esate baterako erosteko, etab.

Zein dira hurrengo txapelketak?

Sailkatzen banaiz, Espainiako txapelketa Aste Santu amaieran.

Agian, beste txapelketa bat egon daiteke. Izan ere, aurten 23 urte azpiko Espainiako txapelketa ez da egingo eta bere ordez, Galizian lehiaketa bat egingo dute sailkapen moduko bat egiteko. Eta agian hara joango gara, ez dago ziur.

Baina bestela denboraldia amaitutzat eman dezakegu eta hurrengo denboraldia prestatzen hasiko gara. Udan atsedenaldia eta irailan berriro lanera.

Euskaraz Errentagarriagoa!

2011ko errenta aitortpena euskaraz egin dezakezu! Biderkatu zure etekina!

Autolikidazioa aukeratu baduzu... Orain da garaia, Euskara Aukeratu!!!

902100040 telefonoan edo www.gipuzkoa.net webgunean.

Lasarte-Oriako Udala